

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresan autonomikoki lan egiten dugun arren, badira hainbat elkarte gurekin lanean aritzen direnak.

Nagusiki, gure herriko udaletxearekin egongo gara elkarlanean, beraiek lagunduko digutelako lokala lortzen, gure proiektuaren promozioa egiten eta hainbat eskolekin harremanetan jartzen hitzaldiak egin ahal izateko.

Enpresa ezberdinekin harremanetan jarriko gara aurrekontuak eskatuz eta kalitate-prezio aldetik hoberen ateratzen zaiguna aukeratuko dugu, sortu dugun liburua inprimatu ahal izateko eta denda ezberdinetan salgai jarri ahal izateko.

Horrez gain, behar bereziak dituzten haurren elkarte ezberdinekin ere kontaktua edukiko dugu edo eskoletako pedagoga terapeutikoekin, noizean behin jokoren bat edo beste egiteko beraiek behar izan ezkerro, edo hezitzaileei formakuntza eman ahal izateko.

Gure proiektua eta produktuak azaleratzeko eta honen bidez bezeroak lortzeko. Eta bestetik, eskura edukitzeko liburua bezeroei eskaintzeko eta honekin batera, dudak edukiz gero gure lokalera edota sare sozialetaz baliatuz gurekin zuzenki erlazionatzeko.

